

OTSAILA
2024
02. ZK.

ZERGA ARAUDIAREN GAURKOTASUNA

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO




Boletín
Oficial de
Gipuzkoa




ALHAO

ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN
ALDIZKARI OFIZIALA

ALHAO — 016 zk. — 2024/02/07 — (PFEZ, SZ, E-EEZ) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 59/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 1EKOA. 123 EREDU BERRIA ONARTZEA. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA, SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK). ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK, KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKIN BATZUEN GAINEAN.

123 eredu berriaren onarpenak, funtsean, arau erreferentziak eguneratzearen eta egokitzapen teknikoaren ondorio da, Zerga Administrazioak lortutako informazioa hobetzeko mekanismoak ezartzeko, eta, era berean, informazio hori eta sor litezkeen itzulketa eskaerak hobeto egiaztatu, lagundu eta kontrolatu ahal izateko. Horregatik, erakundearen funts propioetako partaidetzen dibidenduei eta bestelako errentei eta beste errenta batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako dirusarreraren zenbateko osoa xehatzen da.

ALHAO — 016 zk. — 2024/02/07 — (E-EEZ) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 60/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 1EKOA. ALDATZEA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN ABUZTUAREN 1EKO 448/2016 FORU AGINDUA, ONESTEN DUENA 'EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. AUTOLIKIDAZIOA' 216 EREDUA.

216 eredia onesten duen abuztuaren leko 448/2016 Foru Aginduaren aldaketa, funtsean, arau erreferentziak eguneratzearen eta egokitzapen teknikoaren ondorio da, Zerga Administrazioak lortutako informazioa hobetzeko mekanismoak ezartzeko, eta, era berean, informazio hori eta sor litezkeen itzulketa eskaerak hobeto egiaztatu, lagundu eta kontrolatu ahal izateko. Horregatik, erakundeen funts propioetako partaidetzen dibidenduei eta bestelako errentei eta beste errenta batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako dirusarreraren zenbateko osoa xehatzen da.


ALHAO — 016 zk. — 2024/02/07 — (ZFAO) — 

BIGARREN DIPUTATU NAGUSIORDE ETA OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO FORU DIPUTATUAREN 61/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 1EKOA. ONESTEA 721 EREDUA ('ATZERRIAN KOKATUTAKO TXANPON BIRTUALEI BURUZKO INFORMAZIO AITORPENA') ETA EZARTZEA HURA AURKEZTEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA.

2023rako zerga neurriei buruzko abenduaren 23ko 24/2022 Foru Arauak, "Zerga iruzurraren aurka borrokatzeko tributu neurriak" izeneko IV. tituluan, f) letra gehitzen dio Hemeretzigarren Xedapen Gehigarriari, zeina Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean jasota baitago, atzerrian kokatutako txanpon birtualak edukitzeari buruzko informazio betebeharrak berri bat ezartzeko, edukitzea eta operatiboa horretatik erator daitezkeen zerga egitateen zerga kontrola hobetze aldera.

Era berean, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 49/2023 Foru Dekretuak 23.bis artikulua berri bat gehitzen dio, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduari, kontu, eragiketa eta aktibo finantzarioei buruz eta atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharrak arautzen duenari. Bertan arau bidez garatzen du atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruz informatzeko betebeharrak.

Horregatik guztiatik, foru agindu honen xedea da 721 eredia onestea. Horren bidez, zergapekoek modu telematikoa hutsean aitortu beharko dituzte atzerrian kokatutako txanpon birtualak.

ALHAO — 025 zk. — 2024/02/28 — (BEZ, EZB, EEEBZ) — 

FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 1/2024 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, OTSAILAREN 20KOA. ONESPENA EMATEA ARABAKO ZERGA ARAUDIRA EGOKITZEARI BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN, ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAN ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPEN BALIOAREN GAINEKO ZERGAN EGINDAKO ZENBAIT ALDAKETA, KONTSEILUAREN 2016KO UZTAILAREN 12KO 2016/1164 (EB) ZUZENTARAUAREN TRANSPOSIZIOA OSATZEKO XEDEZ.

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2024 Zerga premiazko araugintzako dekretua, otsailaren 20koa. Onespena ematea Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian eta Energia Elektrikoaren Ekoizpen Balioaren gaineko Zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere.

Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuak ezarri dituen zerga arloko neurriek eragina dute balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsibaitzuen, 23. quater, 26. eta 33. artikuluetan ezartzen du energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta elektrizitatearen gaineko zerga berezia itundu beharra, eta xedatzen du ezen, zenbait salbuespen izan ezik, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuak unean-unean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituztela.

Aurrekoarekin bat etorritik, xedapen honen xedea da Arabako ordenamendu juridikora egokitzea aipatutako abenduaren 27ko 8/2023ko Errege Lege Dekretuan hartutako zerga neurriak eta, hartara, aipatutako aldaketak txertatzea, Ekonomia Itunaren 23. quater, 26. eta 33. artikuluetan ezarritakoak betetzeko.

Era berean, xedapen honen xedea da Barne merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen dituen Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzarauaren transposizioa presaz osatzea, Europako Batzordeak hala eskatuta.

Zuzentzari hori Europar Batasunean (EB) tributazio bidezkoagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzeko Europako Batzordearen neurri multzoaren barruan kokatzen da. Horretarako, zenbait neurri zehatz ezartzea aurreikusten da, plangintza fiskal erasokorra saihesteko, gardentasun fiskala handitzeko eta EBko enpresa guztiztatubaldintza ekitatiboak sortzeko.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 48. artikulua aldatu egin zen 2020rako zerga neurriei buruzko abenduaren 20ko 25/2019 Foru Arauaren bidez, Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzara egokitzeko. Aldaketa horren ondoren, agindu horretan aurreikusitako errenten egozpenak, zergadunaren gehiengo partaidetza duten entitateek lortutako errentez gain, atzerriko establezimendu iraunkorren bidez lortutakoak ere hartzen zituen eraginpean (zergadunaren beraren eta haren gehiengo partaidetza duten entitateen establezimendu iraunkorrak).

Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentzarauaren xedatutakoaren arabera, eta transposizio agindua betetze aldera, aldaketa honek adierazten du ezen, zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitateak establezimendu iraunkor baten bidez lortzen baditu atzerrian errentak, eta errenta horiek sozietateen gaineko zergaren izaera bereko edo antzeko karga baten pean ez badaude edo handik salbuesita badaude zergadunaren gehiengo partaidetza duen erakundeak egoitza duen herrialdean edo lurraldean, egoitza duen jurisdikzioan entitate ez-egoiliarrek ordaintzen duen Espainiako sozietateen gaineko zergaren izaera bereko edo antzeko zerga baten zenbatekoa zenbatzeko, ez dela kontuan hartu behar establezimendu iraunkor hori, establezimendu iraunkorren zein partaidetzapeko entitatearen ordaindutako zergen eta lortutako errenten zenbaketa erantsiak ez dezan ahalbidetu saihestea partaidetzapeko entitatearen errentak zergadun espainiarraren zerga oinarrian egozte.

Azken batean, aldaketa honen helburua da bermatzea, zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitatearen establezimendu iraunkorraren bidez zein zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitateak lortutako errenten tributazio efektiboa kalkulatzeko, entitate bereziaren ikuspegia aplikatuko dela. Horrela, errenta horien tributazio efektiboa bereiz zehaztuko da partaidetzapeko entitatearen jurisdikzioan eta haren establezimendu iraunkorrarenean, hurrenez hurren, eta jurisdikzio bakoitzean lortutako errentak eta ordaindutako zergak soilik kontuan hartuta, eta betiere establezimendu iraunkorragatik lortutako errentak zergadunaren gehiengo partaidetza duen entitatearen jurisdikzioan tributaziotik salbuetsita badaude edo haren kargapean ez badaude.



BAO

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO — 024 zk. — 2024/02/02 — (PFEZ, SZ, E-EEZ) — 

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 47/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 31KOA. HONEN BIDEZ, APIRILAREN 27KO 1330/2000 FORU AGINDUA ETA OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN UZTAILAREN 29KO 1564/2015 FORU AGINDUA ALDATZEN DIRA (1330/2000 FORU AGINDUA, APIRILAREN 27KOA, 123, 124, 126 ETA 128 EREDUAK ONARTZEN DITUENA, PEZETATAN ETA EUROTAN, ATXIKIPENAK ETA PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN, SOZIALATEEN GAINEKO ZERGAREN, ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO SARRERAK AITORTZEKOAK/LIKIDATZEKOAK, ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREI DAGOZKIENAK, ERRENTA EDO KAPITAL HIGIGARRIEN ETEKINEI DAGOKIENEZ -1564/2015 FORU AGINDUA, UZTAILAREN 29KOA, OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUARENA, EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN 216 AUTOLIKIDAZIO-EREDUA ONARTZEN DUENA, ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK AITORTZEKO ERABILI ETA TELEMATIKOKI AURKEZTU BEHAR DENA).

Apirilaren 27ko 1330/2000 Foru Aginduaren bidez, besteak beste, 123 eredia onartu zen, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 29ko 1564/2015 Foru Aginduaren bidez, 216 autolikidazio eredia. Informazio fiskalaren kalitatea hobetzea funtsezko elementua da Bizkaiko Foru Ogasunaren ardurapean dauden laguntza-, ikerketa- eta kontrol-jarduere eraginkortasunerako.

Zehazki, eginkizun horiek gauzatzean antzeman da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren konturako dibidenduen gaineko atxikipenak itzultzeko eskaerak hainbat oztopo sortzen dituztela, eta oztopo horiek zuzenean eragiten diotela laguntza- eta kontrol-jarduere eraginkortasunari. Besteak beste, azpimarratzekoa da zaila dela zergaduna behar bezala identifikatzea eta bizilekua egiaztatzea, bai eta itzulketa eskatzen duen zergadun horri dagozkion atxikipenak benetan sartu ziren egiaztatzea ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da informazioa lortzeko hobekuntza-mekanismoak ezartzea, itzulketa-eskaera horien kontrola eraginkorragoa izan dadin. Ondorioz, foru agindu honen bidez aldatu egiten dira dibidendu eta atxikipen horiei dagozkien autolikidazioak eta, bereziki, 123 eta 216 ereduie dagozkienak.

Horrela, 1. artikulua apirilaren 27ko 1330/2000 Foru Aginduaren II. eranskina eguneratzen du. Agindu horren bidez, 123, 124, 126 eta 128 ereduak onartzen dira, pezetatan eta eurotan, atxikipenak eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako sarrerak aitortzekoak/likidatzekoak, establezimendu iraunkorrei dagozkienak, errenta edo kapital higigarrien tekinei dagokienez.

Eguneratze hori aipatutako II. eranskina ordezkatuz egiten da, erakundeen funts propioetan parte hartzeko dibidenduei eta bestelako errentei dagokien atxikipenen eta konturako sarreraren zenbateko osoan banakapen bat sartzeko helburu bakarrarekin.

Eta, ondoren, foru agindu honen 2. artikulua aldatu egiten du Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 29ko 1564/2015 Foru Agindua, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 216. autolikidazio-eredua onartzen duena. Eredu hori establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko erabili behar da, eta telematikoki aurkeztu.

216 eredian, 123 eredurako aurreikusitako aldaketarekin bat etorriz, atxikipenen eta konturako sarreraren zenbateko osoa banakatu da erakundeen funts propioetan parte hartzeko dibidenduei eta bestelako errentei dagokienean, bai eta beste errenta batzuei dagokienean ere.

BAO — 025 zk. — 2024/02/05 — (OEEJDZ) — 

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 3/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 11KOA, ZEINEN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA ZERGA HAUEK KUDEATZEAN APLIKATU BEHARREKO BATEZ BESTEKO SALMENTA-PREZIOAK: ONDARE ESQUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA, ETA ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIA.

Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 55. artikuluan ezartzen denaren arabera, balioak egiaztatzeko moduetako bat merkatuko batez besteko prezioak aintzat hartzea da. Ildo horretatik, Ogasun eta Finantzen saileko titularrarena, ekitaldi bakoitzean, foru agindu batean biltzen ditu automobilen, autokarabanen, motozikleten, laketontzien eta uretako motoen merkatu-prezioak, eta aurten moto elektrikoek eta quaden merkatu-prezioak ere bilduko ditu.

Horrez gain, urtarrilaren 21eko 70/1992 Foru Aginduan lehenengoz ezarri zen erabilitako itsasontziak eskualdatzean batez besteko prezioak egiaztatze gisa erabiltzeko aukera. Haren arabera, prezio horiek finkatzeko erabilera-urteen araberako portzentajetaula aplikatu behar zen.

Azken eguneratzea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 23eko 954/2022 Foru Agindua baliatuta egin zen, zeinen bidez onartzen baita zein diren, 2023rako, eta aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak zerga hauek kudeatzean: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraio bideren gaineko Zerga Berezia eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 11ko 287/2023 Foru Agindua, zeinen bidez onartzen baitira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraio bideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplikatzeko batez besteko salmenta-prezioak, prezio horiek 2018ko abenduaren 23ko 954/2022 Foru Aginduaren bidez onartu ez ziren kasuetarako.

Zenbait Garraio bideren gaineko Zerga Berezia dagokionez eta balioztatzea Europar Batasuneko irizpideetara egokitzearren, formula bat sartu da, azken urteetan bezala; bada, formula horrek merkatu-baliotik kenduko du, zerga horren ondorioetarako, erabilitako ibilgailu batek dagoeneko jasan duen zeharkako zergapetzea.

Ondorioz, foru agindu honen bidez batez besteko salmenta-prezio horiek berrikusi dira 2024rako, bai eta zerga horiek kudeatzeko aplikatu beharreko ehunekoak ere.

BAO — 026 zk. — 2024/02/06 — (EEEZ) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 40/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA. HONEN BIDEZ, ALDATU EGITEN DA 1561/2015 FORU AGINDUA, UZTAILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN AITORPENERAKO 210 EREDUA ONESTEN BAITA, ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK AITORTZEKO ERABILI BEHAR DENA.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren uztailaren 29ko 1561/2015 Foru Aginduaren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorpenerako 210 eredu onesten da, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko erabili behar dena.

Aurrerago, 2021ean, aldatu egin zen, betetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 21eko 2021/2020 Foru Dekretuak —haren bidez, aldatu egiten da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 15eko 48/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia— hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauaren 14. artikuluko 1. apartatuaren b) letran ezarritako salbuespena aplikatu ahal izateko egoitza fiskala egiaztatzeari dagokionez, Europar Batasuneko beste herrialde batean egoiliar diren pentsio-funtsek edo Europar Batasuneko beste herrialde batean eraturako inbertsio kolektiboko erakundeek lortutako errentak direla-eta, eta, horretarako, egoitza fiskal hori egiaztatzeko kasuan kasuko ereduak onartu ziren.

Orain, 210 eredu jasotako informazioa ahalik eta zehatzena izan dadin, eguneratu egiten da foru-agindu honen bidez.

BAO — 026 zk. — 2024/02/06 — (BESTE BATZUK) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 41/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA, BALORE, ASEGURU ETA ERRENTEI BURUZKO URTEKO AITORPEN INFORMATIBOA EGITEKO 189 EREDUA ONESTEN DUEN OTSAILAREN 17KO 515/2009 FORU AGINDUA ALDATZEN DUENA.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemaren printzipioak eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta hura garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko gaitzen du Bizkaiko Foru Aldundia. Gaitzeta hori aplikatzeko eta informazio-betebeharrak arautzen dituzten 92. eta 93. artikulua garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, besteak beste, abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia. Zehazki, VI. tituluan jasotzen ditu araudi horrek zerga-betebehar formalak.

Lehen aipatutako araudiaren 50. artikulua balore, aseguru eta errenitei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen du. Hala, bada, artikulua hori garatzeko, otsailaren 17ko 515/2009 Foru Agindua eman zen, balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko aitorpen informatiboa egiteko 189 eredu onestekoa.

Duela gutxi, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 695/2023 Foru Agindua, abenduaren 18koa, onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Foru agindu horren bidez aldatu egiten dira Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren otsailaren 17ko 515/2009 Foru Agindua, balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko aitorpen informatiborako 189 eredu onartzen duena, eta azaroaren 11ko 2282/2013 Foru Agindua, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiborako eta haien aurkezpen telematikorako 720 eredu onartzen duena. Foru agindu horrek, 189 ereduari dagokionez, diseinu fisikoak eta logikoak bizi-aseguruen balorazioarekin lotutako azken arau-aldaketetara egokitu zituen aseguru-hartzaileak erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik ez duenean, edo balorazio-arau berrira aldi baterako errentak edo biziarteko errentak jasotzen diren kasuetarako.

Azaroaren 11ko 2282/2013 Aginduaren II. eranskinean jasotako 189 eredu diseinu fisiko eta logikoen deklarazio-erregistroan 2. motako erregistroko «Balio kopurua» eremua bikoiztuta dagoela ikusi denez, zuzendu egiten da.

BAO — 029 zk. — 2024/02/09 — (BESTE BATZUK) —

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 10/2024, FORU DEKRETUA, OTSAILAREN 1EKO, IRAILAREN 27KO 114/2022 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUENA. ARRISKUA PREBENITZEKO BATZORDEA SORTU ETA ARAUTZEN DUENA, «EUOPAR BATASUNAK KOFINANTZATUTAKO PROIEKTUETAN INTEGRITATEA, KUDEAKETA-ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA IRUZUR-KONTRAKO NEURRIAK EZARTZEKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PLANAREN ESPARRUAN».

Integritatea, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzur-kontrako neurriak ezartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Plana Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 17ko bilkurako erabaki baten bidez onetsi zen.

Ondoren, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 27ko 114/2022 Foru Dekretua onartu zuen (2022ko urriaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 191. zenbakia). Haren bidez, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen duena, «Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan integritatea, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzur-kontrako neurriak ezartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Planaren esparruan».

2022ko maiatzaren 17ko Integritate Plan horrek Arriskuaren Prebentziorako Batzordeari esleitzen zion, urtero, plana gauzatzeko arduraren dutenek plana behar bezala erabiltzen eta aplikatzen dutela egiaztatzeko eginkizuna, bai eta sartu nahi diren hobekuntza-beharrak identifikatzeko ere.

Plan hori aldatzeko beharra baloratu eta aztertu ondoren, eguneratzea onartu da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen zuzendari nagusiaren 2023ko abenduaren 12ko Ebazpenaren bidez.

Horretarako, honako hauek hartu dira kontuan: HFP/55/2023, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematiakoari buruzkoa; 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa; eta 75/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa, salaketan barnekanal bakarra ezartzen duena, Arau-hauste Arauemaileei eta Informatzaileak Babesteko Barne Sistema izenekoa Bizkaiko Foru Aldundian.

Behin Integritate Plana eguneratuta, haren edukia errespetatzeko eta harekin koherentzia egokia izateko, beharrezkotzat jotzen da Arriskuen Prebentziorako Batzordea arautzen duen irailaren 27ko 114/2022 Dekretua aldatzea, zehazki 4. eta 6. artikulua, Batzordearen funtzioei eta osaerari buruzkoak.

Komitearen eginkizunak arautzen dituen 4. artikulua aldatzeko c) letran adierazitako funtzioa ezabatzean oinarritzen da, hau da, iruzur edo ustelkeria izan daitezkeen gaiak aztertzea eta, hala badagokio, organo eskudunari igortzeko proposamena egitea, ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren tipologia eta irismenaren arabera dagokion erakundera bidal dezan.

Era berean, zati batean aldatzen da e) letran adierazitako funtzioa, eta bertan baliozkotzea sartzen da, ez bakarrik ereduena, baita irregulartasun sistemikoak, interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko beharrezkoak diren prozedurena ere, eta lotutako jarduketaren dokumentazioa.

Bestalde, 6. artikulua aldatzeko, Batzordearen osaera arautzen duena, organo horren banaketa funtzionala eta inpartzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak, eta, beraz, honako aldaketa hauek egiten dira:

— Auditoria zerbitzuko burutzaren parte-hartzea Komitearen eginkizun guztietara mugatzen da, ustezko interes-gatazkari buruzko proposamen bat prestatzera izan ezik. Proposamen hori Komiteari jakinaraziko zaio, hierarkian gorago dagoenari laguntzeko txosten bat egin dezan. Banaketa funtzionalaren printzipioa betetzeak eragiten du salbuespen hori.

— Fiskalizazio zerbitzuaren burutzaren ordez, Europari buruzko Orientazioa bideratzeko zerbitzuaren burutza jarriko da, eta hura ez badago, hutsik badago edo gaixorik badago, Europari buruzko Orientazioa bideratzeko ataleko burutzak ordezkatuko du.

— Kendu egiten da azpiproiektuaren Organo Kudeatzailearen Ordezkarria Batzordeko kide izateko aukera.

— Sail eta foru erakunde publikoen lankidetzak eskatzeko aukera aurreikusten da, Batzordeak aztertu beharrekoko gaien buruzko informazioa jasotzeko.

Azkenik, foru dekretu hau eguneratu da, Bizkaiko Foru Aldundiko sailak eta horien jardun-arloak eta eginkizunak ezartzen dituen Ahalduen Nagusiaren zuzenbidearen 6ko 169/2023 Foru Dekretuaren bidez onartutako egitura berriari dagokionez.

BAO — 033 zk. — 2024/02/15 — (ZZBB) —

OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTATUAREN 61/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 6KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATU EGITEN BAITA 617/2012 FORU AGINDUA, MARTXOAREN 16KOA, R-1 EREDUA («ORDEZKARITZA-AGIRI NORMALIZATUA») ONESTEN DUENA.

Zuzenbidearen 12ko 1782/2005 Foru Aginduaren bidez, R-1 ereduaren («Ordezkaritza-dokumentu normalizatua») onetsi zen, jarduteko gaitasuna duten zergapekoek beren borondatez jardun ahal izan zezaten Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean ordezkaritza baten bitartez, dokumentu estandarizatu baten bidez.

Gerora, Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren autolikidazioa egiteko 576 ereduaren onartu zuen 2007ko ekainaren 21eko 1717/2007 Foru Aginduaren xedapen gehigarriaren bidez, funtzio gehiago sartu ziren R-1 ereduaren katalogoan, eta eredu horren bidez zerga-egoitzan eta/edo jakinarazpenetarako helbidean aldaketak eskatzeko aukera eman zen.

Indarrean dagoen R-1 ereduaren 2012ko martxoaren 16ko 617/2012 Foru Aginduaren bidez onartu zen. Foru-agindu horren bidez, zenbait aldaketa sartu ziren: zerga-egoitza edo jakinarazpenetarako helbidea aldatzeko eskatzeko sistema berria ezarri zen; handik aurrera ezin izango zen erabili R-1 ereduaren Rentanet Etxean-en proposamenak eta datu fiskalen gakoak lortzeko, eta, ordezkaritza Bizkaiko Foru Ogasunaren datu-baseetan identifikatuta egonez gero, ez zen aurkeztu behar haren IFZren kopia.

Orain, Bizkaiko Foru Ogasunaren errealitate operatibo eta normatibo berrietara egokitu behar da R-1 ereduaren bidez ere inguruabar hauek eraginda: Ahalordetzearen Erregistro Elektroniko Orokorra sortu eta arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretua onartu zen; migrazioa egin da Foru Aldundiaren egoitza elektronikora, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga kudeatzeko eredu berria ezarri da Batuz sistemaren hirugarren zutabe gisa.

Hiru faktore horien ondorioz, egokitu egin behar dira R1 ereduaren eta hura arautzen eta onesten duen foru-aginduaren edukia, R1 ereduaren bidez formalizatutako ordezkaritza erabiltzeko aukera ematen duten jarduketak murrizteko.

AKATSEN ZUZENKETA 2024/02/16



Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2024ko otsailaren 15koa, 33 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

BAO — 035 zk. — 2024/02/19 — (BESTE BATZUK) —

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 13/2024 FORU DEKRETU, OTSAILAREN 15KOA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA DIRULAGUNTZA FORALEN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK, SUSTATZEKO 150.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO BIZKAIKO UDALEK ETA UDAL HORIEK PARTE HARTZEN DUTEN ELKARTEEK EUROPAR BATASUNAREN PROGRAMA ETA EKIMENETAN PARTE HARTZEA 2023KO AZAROAREN 1ETIK 2024KO URRIAREN 31RA BITARTEAN.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Europari buruzko orientazioa bideratzeko Zerbitzuaren bitartez, helburu hau bete nahi du, besteak beste: Europari buruzko informazioa ahalik eta gehien jaso eta zabaltzea lortzeko duten ekintzak zuzendu, koordinatu eta sustatzea, bai eta Bizkaiko udalerrien arteko elkarrengana Europako deialdiei begira zuzendu, koordinatu eta sustatzea ere.

Haren eginkizunen artean, hauek daude: Bizkaiko udalerriei Europar Batasunaren barruan dauden finantzaketa-deialdi eta aukeren inguruko orientazioa eta laguntza emateko zerbitzu bat martxan jartzeko lanak zuzentzea (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 28ko 84/2022 Foru Dekretuaren 18.2.g artikulua, Ahalduen Nagusiaren Kabinetean eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetean arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena) eta Europako jarduketetan parte hartzeko aukera berriak detektatzea eta haien diseinua proposatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek dituzten beharrezkoak aintzat izanda (aipatutako dekretuaren 18.2.d artikulua).

Hortik sortu da Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko Bulegoa, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bizkaiko udalei Europar Batasunaren finantzaketaren aukerei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzeko tokiko proiektuetarako Europako finantzaketa eskatzen dutenean.

Bizkaiko Foru Aldundiko sailak eta horien jardun-arloak eta eginkizunak ezartzen dituen Ahalduen Nagusiaren uztailaren 6ko 169/2023 Foru Dekretuaren arabera, «Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak Bizkaia Erakargune bihurtzeko Zuzendaritzaren egungo zerbitzuak sartuko ditu (7.1.c artikulua)».

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek Europako finantzaketari buruzko programa eta tresnetan parte hartzea funtsezkoa da lurraldean proiektu estrategikoak garatu ahal izateko, eta, horrez gainera, aukera ematen du Europako puntako beste kide batzuekin lan egiteko eta Bizkaian egiten den lana eta lortzen diren emaitzak nazioartean ikusarazteko.

BFA jakitun da zer zaila den honelako finantzaketan parte hartzea, batez ere udalentzat, baliabide tekniko eta ekonomiko eta giza baliabide gutxi baitituzte. Hori horrela, foru-dekretu honen bidez laguntza-lerro berezi bat ezartzen da Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte har dezaten; helburua da parte hartze horren kostuen osorik edo zati batean finantzatzea.

Foru Dekretu honek balizko onuradun gisa hartzen ditu mankomunitateak ez diren beste udal elkarte batzuk, hala nola Behargintzak, landa garapenerako elkarteak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeko turismo-kudeaketa erakundeak, udalek beren proiektu estrategikoak bultzatzeko dituzten lan egiteko eta elkartzeko errealtate eta moduei erantzuteko helburuarekin, proiektu horiek, askotan, udal-eremua gainditzen baitute.

Programa eta ekimen horiek gauzatzeko, deialdi batzuk egingo dira, Bruselan, estatuan edo eskualdean kudeatuko direnak. Haietan parte hartzeko hau da beharrezkoa: parte hartzeko erabaki irmoa izatea eta deialdian aurkeztuko den proiektua ondo idazteko eta parte hartzeko baldintzak garai eta forma egokian prestatzeko euskarri tekniko ona izatea. Horrek guztiak kostu erantsi batzuk ekarri ohi ditu, eta dekretu honen helburua da haien zati bat finantzatzea.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira (hemendik aurrera, APEL) eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan daude jasota (hemendik aurrera 87/2021 Foru Dekretua).

Dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, maiatzaren 31ko 5/2005 Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako lehia askeko prozeduraren bidez emango dira. Prozedura horrek laguntzak modu eraginkorrean esleitzeko aukera ematen du, eskaerak jaso ahala emanez.

Jardueren izaera dela eta, eskatzailea urtean zehar Europako finantzaketa-deialdi ugarietako batera aurkezten denean sortzen da laguntzaren beharra. Hori dela eta, ezinezkoa da eskabideak konparatzea eta, ondorioz, norgehiagoka egitea. Horrela, laguntzak modu eraginkorrean esleitzea ahalbidetu nahi da.

Horrez gainera, genero-ikuspegia txertatu da dekretu hau egitean, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena. Gainera, kontuan hartu da azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira eta Bizkaiko Emakumeen eta gizonen berdintasunareko VI Foru Plana. Ildo horretan, tramitazioan, 87/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

87/2021 Foru Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hau salbuetsita dago aurretiko kontsulta publikoaren eta jendaurreko informazioaren entzunaldiaren izapideetatik, xedapen arauemaile bat delako, «diru-laguntza, beka eta bestelako laguntza ekonomikoaren programen oinarriak eta deialdiak onartzen dituen, baldin eta haien edukia berdina bada edo ez bada funtsean aldatzen Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen aurreko ekitaldietan xede berarekin onartutako oinarrien eta deialdien edukia».

Dekretu honen bidez diruz lagundutako jarduerak ez dira estatuaren laguntzak; izan ere, erakunde onuradunek ez dute merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzean datzan edozein jarduera ekonomiko gisa definitzen den jarduera egiten, baizik eta udal-politikak garatzen eta bultzatzen dituzte, bai banaka, bai udal-partaidetzako beste erakunde batzuen bidez, eta haien helburua publikoa da, guztiak interes komuneko jarduerak garatzen baitituzte beren eskumenen esparruan. Gainera, tokiko zerbitzuak direnez, esan daiteke ez dietela eragiten estatu kideen arteko merkataritza-trukeei.



GAO — 024 zk. — 2024/02/02 — (E-EEZ) — 

20/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 31KOA, "EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. AUTOLIKIDAZIOA» IZENA DUEN 216 EREDUA ONETSI ETA HURA AURKEZTEKO MODUAK ETA EPEAK EZARTZEN DITUENA.

Abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentengatik atxikitzeko eta kontura sartzeko obligazioak arautzen ditu 31. artikuluan.

Artikulu horren 2. apartatuak dioenez, atxikitza behartuta dauden subjektuek zenbateko hau atxiki edo sartu beharko dute kontura: foru arauan, establezimendu iraunkorrik gabeko zerga honen zergadunen tributuz zorra zehazteko, aurreikusten diren xedapenak aplikatuta ateratzen dena edo zergapetze bikoitza saihesteko sinatutako hitzarmen aplikagarrian ezarritakoetatik ondorioztatzen dena, betiere foru arau bereko 24. artikuluko 2. eta 6. apartatuetan, 26. artikuluan eta 33. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoa kontuan hartu gabe. Horrek ez du kentzen, hala ere, erregelamenduz xedatutakoari jarraitzea konturako sarrera kalkulatzeko.

Bestalde, 5. apartatuak dio ezen atxikitza edo kontura sartzera behartutako subjektuak atxiki edo kontura sartu diren kopuruen autolikidazioa aurreko lehen hiru hilabetez ingratu behar duela Foru Ogasunean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan. Orobat dio atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar izan ez den kasuetan, autolikidazio negatiboa aurkeztu beharko dela.

Bestalde, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 13. artikuluan xedatzen duenez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipena egin beharko da establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunek jaso dituzten eta zerga horri lotuta dauden errentengatik, zergaren foru arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Era berean, aurreko apartatuan aipatutako errentak gauzen bidez ordaindu edo abonatzen direnean, konturako sarrera bat egin beharko da jasotzaileari dagokion ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren menpeko errentei dagokienez.


Bere aldetik, aipatutako erregelamendua 19. artikulua ezartzen du ezen, hiru hilean behin, atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak aurreko lehen hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoen autolikidazioa aurkeztu eta ingratu behar duela Foru Ogasunean.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako ordainketa eta autolikidazioa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetean egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua 71.3 artikuluko 1. zerbakiari jasotzen dituen zirkunstantzietan badaude.

Atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoek aitorten negatiboa aurkeztuko dute zergaren foru arauaren 31. artikuluko 4. apartatuan adierazitako errentak ordaintzen dituztenean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen duen kasuetan izan ezik.

Aipatutako 19. artikuluan 4. apartatuak dioenez, pertsona edo entitate ordaintzaileak, errentak ordaintzen dituzten unean, egindako atxikipena edo konturako sarrera komunikatu behar diete zergadunei, bai eta aplikatutako portzentajea adierazi ere. 5. apartatuak xedatzen du artikulu horretan aipatzen diren aitortenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen eredu, modu eta epeetan aurkeztuko direla.

Kontuan hartuta indarrean dagoen 216 eredu onetsi zuen foru agindua aipatutako xedapenak baino lehenagokoa dela eta zorra aurkeztu eta ordaintzeko prozeduran bitarteko elektronikoen erabilera nagusituz joan dela, zilegi da eredu berri bat onestea eta hura aurkezteko prozedura eguneratzea.

GAO — 024 zk. — 2024/02/02 — (E-EEZ) — 

21/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 31KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITA 123 EREDUA, «PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKIN JAKIN BATZUEN GAINEKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA ETA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA DUTEN EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. ZENBAIT ERRENTAREN GAINEKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK» IZENEKO, ETA HURA AURKEZTEKO EPEAK ETA MODUAK EZARTZEN BAITIRA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 106.1 artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 130.1 artikulua ezartzen dute atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar direla, zerga horien konturako ordainketa gisa, erregelamenduz erabakiko den zenbatekoan, bai eta zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundian ingratu ere Ekonomia Itunean ezartzen diren kasuetan eta moduan.

Era berean, abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 23. artikuluan dio establezimendu iraunkorrek zerga horren likidazioaren konturako ordainketa egin behar dituztela, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudia aplikatzen duten entitate egoiliarrentzat ezarritako eran. Halaber dio establezimendu horiek atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituztela, sozietateen gaineko zergaren Gipuzkoako araudia aplikatzen duten entitate egoiliarrentzat ezarritako eran.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak eta konturako sarreraren sistemaren erregelamenduzko garapena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan jasotzen da (urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretua). Hala, 91. artikulutik 98.era bitartean konturako ordainketa egiteko betebeharraren arau orokorrak ezartzen dira, eta horien artean daude, besteak beste, kapital higigarriaren etekinei eragiten dieten atxikipenak eta konturako sarrerak. 103. artikulutik 107.era bitartean, jasotzen dira konturako ordainketei dagokienez kapital higigarriaren

etekinei aplikatu beharreko arau espezifikoak, eta 120. artikulua atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak formalak arautzen ditu.

Zehazki, 120. artikuluko horren 1. apartatuak dio ezen, hiru hilean behin, atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoak aurreko hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoen aitorpena aurkeztu behar duela, bai eta zenbateko hori Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu ere.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilabetearen egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 71. artikuluan 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen diren egoeretan badaude.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak administrazio publikoak direnean, Gizarte Segurantzaren barne, baldin eta ekitaldia hasi aurretik azken onetsi den urteko aurrekontua 6 milioi eurotik gorakoa bada, betiere 93. artikuluan 1. apartatuko a) eta c) letratan eta 2. apartatuko c) letran aipatutako errentengatik egindako atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez.

Atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak aitortzen negatiboa aurkeztuko du baldin eta, atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaindu arren, inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin ez badu errenta horien zenbatekoa dela eta. Ez da aitortzen negatiborik aurkeztu behar, aitortpenaren zergaldian atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentarik ordaindu ez denean.

Bestalde, 120. artikuluko 5. apartatuak dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakiko duela aitorpena eta ordainketa non, nola eta zein epetan egin beharko diren, eta berak ere ezarri ahal izango duela zein kasutan eta zer baldintza bete beharko diren artikuluko honetan aipatzen diren aitorpenak eta ziurtagiriak bitarteko elektronikoz aurkezteko.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, atxikipenen eta konturako sarreraren sistemaren erregelamenduzko garapena Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 49tik 57ra bitarteko artikuluetan jasotzen da (ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretua). Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren bezala, aipatutako erregelamenduan 57. artikulua atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak formalak ezartzen ditu lehen aipatutako baldintza berberetan.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun diren establezimendu iraunkorrei dagokienez, atxikipenen eta konturako sarreraren sistemaren erregelamenduzko garapena Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan dago jasota (maiatzaren 17ko 11/2016 Foru Dekretua). Erregelamendu horren 12. artikuluan, sozietateen gaineko zergaren erregelamenduzko araudian ezarritakoei parekatzen dira atxikipenen eta konturako sarreraren kasuak eta baldintzak, eta, gainera, ezartzen du haien obligazioa dela atxikipenak eta konturako diru-sarrerak egitea Espainiako lurraldean egoiliarren kasuak dauden entitateen baldintza berberetan.

Kontuan hartuta indarrean dagoen 123 eredu onetsi zuen foru agindua aipatutako xedapenak baino lehenagokoa dela eta zorra aurkeztu eta ordaintzeko prozeduran bitarteko elektronikoen erabilera nagusituz joan dela, zilegi da eredu berri bat onestea eta hura aurkezteko prozedura eguneratzea.

GAO — 025 zk. — 2024/02/05 — (PFEZ) —

22/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 31KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA ABENDUAREN 27KO 586/2023 FORU AGINDUA, «PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. LAN ETEKINEN, JARDUERA EKONOMIKOEN ETEKINEN ETA SARIEN GAINEKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. URTEKO LABURPENA» IZENEKO 190 EREDUA ONETSI, ETA HURA AURKEZTEKO MODUAK ETA EPEAK EZARTZEN DITUENA.

Duela gutxi abenduaren 27ko 586/2023 Foru Agindua onetsi zen, «Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoaren etekinen eta sariaren gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredu onartu, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituena.

190 ereduaren eman beharreko informazioan, txertatuta gelditu zen zerga administrazio kontseiluetako, haien ordezkari batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administratzaile eta kide izatetik eratorritako ordainsariei dagozkien lan etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak administrazioen artean esleitzeari buruzko informazioa, zeina eman behar baitzen prestazio horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bizkaiko edo Arabako Foru Aldundiak, Nafarroako Foru Komunitateak edo Estatuak batera exijituz ezazaketen sozietateen gaineko zergaren zergadun diren entitateek ordaintzen dituztenean zuzenbidezko arau hauei jarraituz: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia), Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa (abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsia), Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua eta Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua (urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia) eta Araba eta Bizkaiko lurralde historikoetako zerga beraren foru arauak eta erregelamenduak.

Hura argitaratu ondoren, akats bat antzeman da euskarazko testuan, Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenen eta konturako sarreraren kasuan eman beharreko informazioari dagokionez.

Hori dela eta, foru agindu honen bidez zuzendu egiten da akats hori «Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoaren etekinen eta sariaren gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredu onartu, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen abenduaren 27ko 586/2023 Foru Aginduan.

GAO — 029 zk. — 2024/02/09 — (BEZ) —

1/2024 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, OTSAILAREN 6KOA, BALIO ERANTSAREN GAINEKO ZERGA, ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGA ALDATZEKO.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, 23 quater artikuluan ezartzen du ezen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga itundutako tributu bat dela, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau bereberei jarraituz erregulatutako behar dena.

Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, badute ahalmena aitortzen eta ordainketa ereduak onesteko eta likidazioaldi bakoitzeko ordainketa epeak zehazteko. Baina, eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezin dira izan Estatu Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Hitz horiek berak erabiliz ituntzen dira balio erantsiaren gaineko zerga 26. artikuluan eta zerga bereziak 33. artikuluan.

Abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriei buruzkoak, zenbait aldaketa sartu ditu hiru zerga horietan, tributu horiek erregulatzen dituen foru araudira ekarri behar direnak.

Zehazki, helburua da aipatutako abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren 19. artikulutik 23.era bitartean zerga horietan sartu diren neurriak gure araudira ekartzea hiru xedapen hauek aldatuz: uztailaren 26ko 8/2023 Foru Dekretu Arauemailea, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarena, uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena, eta uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea, Zerga Bereziarena.

Errege Lege Dekretuaren 19. artikulua ezartzen du 2024ko ekitaldian araubide sinplifikatua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko muga 250.000 eurokoa izango dela. Muga hori uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen lehen xedapen iragankorrean jaso beharra dago.

20. artikulua ezartzen du zer zerga tasa aplikatuko diren, aldi baterako, balio erantsiaren gaineko zergan, premiazko elikagaien entrega, inportazio eta batasun barruko eskurapen jakin batzuetan. 2023. urterako, tasa horiek uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen laugarren xedapen iragankorrean jasota daude.

Bere aldetik, 21. artikulua ezartzen ditu produktu energetikoen entrega, inportazio eta batasun barruko eskurapen jakin batzuei aldi baterako aplikatzeko zaizkien zerga tasak. 2023. urterako, zerga tasa horiek 3/2023 Foru Dekretu Arauemailearen bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan jasota daude.

22. artikuluan ezartzen da 2024ko ekainaren 30a arte elektrizitatearen gaineko zerga berezian aplikatuko den zerga tasa, eta 23. artikuluan, berriz, zehazten da zein izango diren 2024ko ekitaldian energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa.

Azkenik, bigarren xedapen iragankorrek finkatzen du zer epe aplikatuko diren 2024an balio erantsiaren gaineko zergaren araubide sinplifikatuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari uko egiteko eta egindako aukerak errebokatzeko.

Aldaketa horiek foru araudian jasotzea ezinbestekoa da zerga itunduen araudia eguneratuta mantenduko bada, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberen arabera erregulatuta behar direla aintzat hartuta.

GAO — 036 zk. — 2024/02/20 — (OEEJDZ, ODZ, ZGGZ, OZ) —

60/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 9KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA IBILGAILU ETA ITSASONTZIEN BATEZ BESTEKO SALMENTA PREZIOAK ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN, OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGAREN, ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIAREN ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGAREN KUDEAKETAN APLIKATZEKO.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan ezartzen du merkatuko batez besteko prezioak balioak egiaztatzeko bitartekoetako bat direla.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 86. artikuluko 2. apartatuan xedatzen duenez, balio egiaztapena merkatuko batez besteko prezioen arabera egiten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartu eta argitaratu ahal izango du batez besteko prezio horiek ondasun motaren arabera kalkulatzeko erabiliko den metodologia edo sistema, baita hortik ateratzen diren balioak ere.

Orain artean bitarteko hori jo da egokitzat garraio bidezko pribatuen balioak egiaztatzeko, eta, horretarako, foru agindu bat onetsi izan da, non jasotzen baitira ez bakarrik turismo ibilgailuen, autokarabanan, lur orotarikoen eta motozikleten merkatuko prezioak, baita aisiarako itsasontzienak ere.

Bestalde, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 45. artikuluan dio Administrazioaren egiaztapenetik kanpo geratuko dela errepidez zirkulatzeko ibilgailu motordun mekaniko erabilien balioa, bai eta itsasontzi erabiliena ere, aldi-aldi foru agindu bidez argitaratzen diren batez besteko salmenta prezioen tauletan jasota badaude.

Aipatutako tauletan, ibilgailu edo urontziaren erabilera urteen arabera aplikagarri diren balio galerako portzentajeak jasoko dira.

Balorazio hori berdin aplikatu da orain arte bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan eta bai zenbait garraio bidezko gaineko zerga berezian ere.

Orobat, ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 20. artikuluan bigarren paragrafoan ezartzen du ezen zergadunek, merkatu balioa zehazteko, erabil ditzaketela zergaren sortzapen egunean ibilgailu erabilentzat indarrean dauden balorazio taulak, hain zuzen ere ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarako Foru Aldundiak onartutakoak.

Aipatutako ibilgailuen azken eguneratzea otsailaren 8ko 66/2023 Foru Aginduak egin zuen (apirilaren 5eko 151/2023 Foru Aginduaren bidez aldatuak). Haren bitartez onetsita geratu ziren ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, zenbait garraio bidezko gaineko zerga bereziaren eta ondarearen gaineko zergaren kudeaketan aplikatu beharrekoak hain zuzen.

Oraingo foru aginduak eguneratu egiten ditu haiei aplikatu beharreko batez besteko salmenta prezioak. Horrela, eguneratu egiten da aurreko foru aginduan itsas motorrei dagokionez jasotako oinarriko balorazioa, potentzia mekaniko errealeko unitatearen arabera finkatua, eta bertan jasotako balio galeraren portzentajearen taula mantentzen da. Hala ere, berritasun gisa, IV. eranskinean taula bat sartu dugu dagoeneko matrikulatuta dauden autokarabanan batez besteko prezioak eguneratzeko portzentaje espezifikoekin, eta, horretarako, kontuan hartu da karabanan merkatuko balio gutxitu egiten dela denborak aurrera egin ahala, gainerako ibilgailuen ez bezalako eritimoan.

Modeloen informazio eta identifikazio datu gisa zaldi potentzia (ZP) ere mantentzen da motorren potentzia adierazteko, ohiturari jarraituz. Izan ere, datu hori izaera komertzialeko datu orokorra da, automobilen zenbait modelo identifikatzeko balio duena, nahiz eta ez den inola ere Neurketa Unitateen Legezko Sistemari onartutako unitate bat (abenduaren 22ko 32/2014 Legea, Metrologiarena). Era berean, ibilgailu batzuk bereizte aldera, erabaki da merkaturatze aldia ere identifikazio elementu gisa erabiltzea, haien deitura denboraren joanean ere mantentzen baita. Izan ere, ibilgailu batzuk, desberdinak izanik ere, izen komertzial berdinarekin jarraitzen dute urte askotan. Era berean, errekuntza motorra duten motozikleta eta quad-en batez besteko prezioak adierazteko, haien motorren tamaina hartzen da berritua, zentimetro kubikotan adierazia. Motozikleta elektrikoaren batez besteko prezioak, berriz, motorrak garatutako potentziaren arabera bereizten dira, kW-tan adierazita.

Azkenik, aurreko foru aginduetan bezala, zenbait garraio bidezko gaineko zerga bereziari dagokionez, eta balorazioa Europar Batasuneko irizpideekin bat etor dadin, mantendu egin da aurreko urtean erabilitako formula, hau da, merkatuko balioak kanpo uzten da, zerga horren ondorioetarako, ibilgailu erabiliak dagoeneko jasan duen zeharkako zerga.


GAO — 039 zk. — 2024/02/23 — (OEEJDZ, ODZ, ZGGZ, OZ) — 

76/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 16KOA, ZEINAREN BIDEZ ONESTEN BAITIRA OTSAILAREN 9KO 60/2024 FORU AGINDUAN SARTU EZ DIREN ZENBAIT GARRAIO ELEMENTUREN BATEZ BESTEKO SALMENTA PREZIOAK. FORU AGINDU HORREN BITARTEZ, IBILGAILU ETA ITSASONTZIEEN BATEZ BESTEKO SALMENTA PREZIOAK ONETSI ZIREN ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA, ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIA, ETA ONDAREAREN GAINEKO ZERGA KUDEATZEAN APLIKATZEKO.

Otsailaren 9ko 60/2024 Foru Aginduaren bidez, onetsita geratu ziren ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, zenbait garraibideren gaineko zerga bereziaren eta ondarearen gaineko zergaren kudeaketan ibilgailu eta itsasontziei dagokienez aplikatu beharreko batez besteko salmenta prezioak.

Foru agindu horretan araututakoak ez diren beste garraibide pribatu batzuen «inter vivos» eta «mortis causa» transmisioen ondorioz, gaur egun eragiketa ugari geratzen dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziari lotuta, eta horrek beharrezko egiten du foru agindu bat onestea beste garraibide mota horiek, ibilgailu industrialak kasu, objektiboki baloratzeko sistema bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarri dadin.

Zenbait garraibideren gaineko zerga bereziari dagokionez, balorazioa Europar Batasunaren irizpideekin bat etor dadin, aurreko urteetan bezala formula bat sartu da dena delako ibilgailu erabiliak jasandako zeharkako zerga merkatu baliotik ezabatzeko, zerga horren ondorioetarako beti.

GAO — 041 zk. — 2024/02/27 — (AURREKONTUAK) — 

12/2024 FORU DEKRETUA, OTSAILAREN 20KOA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK LUZATZEARI BURUZKOA.

Urte hasieran Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024rako Aurrekontu Orokorrak ez onartzeak luzapen mekanismoak martxan jartzea dakar berarekin. Juridikoki, mekanismo horiek Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 78. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua onartzen duen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauan jasota daude.

Foru arau horietan ezarritakoa aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da erregelamenduzko garapena, aurrekontuaren jarduketa zuzenduko duten printzipioak ezar daitezen eta hura ofizialki argitaratzea aurrekontu luzatuaren diru zuzkidurek eraginkortasun juridikoa izan dezaten.

Foru dekretu honek orekan jarri nahi ditu Aurrekontua erakundeen jarduna bermatzen duen tresna gisa erabiltzea eta Batzar Nagusiei zor zaien errespetua gordetzea, berau baita aurrekontuak onartzeko instantzia eskuduna.

EHAA

EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN ALDIZKARIAEHAA — 029 zk. — 2024/02/08 — (EEAE) — 

AGINDUA, 2024KO OTSAILAREN 1EKOA, EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ KARGUTIK KENTZEN BAITA EUSKADIKO EKONOMIA ARDURALARITZAKO EPAITEGIKO BOKAL TITULAR BAT ETA BERRIA IZENDATZEN.

Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiko kide kopurua eta karguak aldatzen dituen martxoaren 22ko 134/1994 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari dagokio erakunde horretako kideak izendatzea, agindu bidez.

Aipatutako xedapenean ezarritakoa betetzeko, eta indarrean diren legezko xedapenek ematen dizkidaten ahalmenez baliatuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Kargutik kentzea.

Ane Etxenausia Aramburuzabala andrea Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiko bokal titularraren kargutik kentzea.

2. artikulua.- Izendapena.

José Antonio Cayero Bilbao Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiko bokal titular izendatzea.

Aurreko lerroaldean aipatutako pertsonak, Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko adskripzioa galtzen badu, automatikoki utziko dio Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiko kide izateari.

3. artikulua.- Indarrean jartzea.


Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

EHAA — 036 zk. — 2024/02/19 — (EEAE) — 

IRAGARKIA, 2024KO OTSAILAREN 8KOA, EAEKO AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN IDAZKARITZARENA, ZEINAREN BIDEZ JAKINARAZTEN BAITIRA EAEKO AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK HARTU DITUEN ERABAKIAK ETA HAREN ESKUMENENKO GAINERAKO EGINTZAK.

Abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak, zergen arlokoak, 112.1 eta 234.4 artikuluetan ezarritakoa eta arestian aipatu den maiatzaren 13ko 520/2005 Errege Dekretuak, Zergen Lege Orokorra garatzeko erregelamendu orokorra onartzen duenak, 50.3 artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazpenak EAEko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren Idazkaritzan jartzen dira (Gaztelako atea 15, 1. solairua, Vitoria-Gasteiz) egutegiko 15 egunetan, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epealdi horretan, interesdunak, zuzenean edo ordezkari baten bidez (ordezkariak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete behar ditu), egintzaren kopia bat jaso ahal izango du EAEko Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren Idazkaritzan; alabaina, kopia jaso izana sinatu beharko du lehenbizi. Epe horren barruan agertzen ez bada, jakinarazpena egindakotzat joko da epea amaitu eta hurrengo egunean, legezko ondorio guztietarako.



NAFARROAKO Aldizkari Ofiziala

NAO — 025 zk. — 2024/02/02 — (BESTE BATZUK) — 

7/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 345 EREDUA: "AITORPEN INFORMATIBOA. PLANAK, PENSIO FUNTSAK ETA SISTEMA ALTERNATIBOAK. GIZARTE AURREIKUSPENeko MUTUALITATEAK, AURREIKUSPEN PLAN ASEGURATUAK, AURREZPEN SISTEMATIKOKO BANAKAKO PLANAK, ENPRESEN GIZARTE AURREIKUSPENeko PLANAK ETA MENDEKOTASUN ASEGURUAK. PARTAIDE, EKARPEN ETA KONTRIBUZIOn URTEKO AITORPENA".

Zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu neurri batzuk aldatzeari buruzko abenduaren 30eko 36/2022 Foru Legeak 55. artikulua aldatu zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori). Hala, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioengatik zerga-oinarrian aplikatu beharreko murriztapen mugak aldatu ziren (artikulu horretan ezarritakoak), eta gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen mugak egokitu ziren, Enpleguko pensio funtsak bultzatzeko araubideari buruzko ekainaren 30eko 12/2022 Legeak ezarritako finantza mugen arabera (lege horren bidez aldatu zen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pensio Plan eta Funtsak arautzeko Legearen testu bategina).

Alde batetik, bide bat ematen da murriztapen muga handitzeko, kontuan izanda langileak tresna kolektiboari enpresa-ekarpenaren arabera egiten dizkion ekarpenen eskala bat; eta, beste alde batetik, bide bat ematen da murriztapen muga 4.250 euro handitzeko, ekarpen hauetan: norberaren konturako langileek edo autonomoek egindako pensio plan sektorialetarako ekarpenetan, baldin eta beren jardueragatik atxikitzen bazaizkie plan horiei; norberaren konturako langileen edo autonomoen enpleguko pensio plan sinplifikatuetarako ekarpenetan (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren 67.1 c) artikuluan daude aurreikusita pensio plan horiek); eta enpresaburu indibidualak edo profesionalak enpleguko pensio planetarako edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetarako egiten dituen ekarpen propioetan, baldin eta plan horien sustatzailea eta, gainera, partaidea ere bada, edo, bestela, haien mutualista bada; eta enpresen gizarte aurreikuspeneko planetarako edo mendekotasun aseguru kolektiboetarako egiten dituen ekarpenetan, baldin eta, aldi berean, horien hartzailea eta aseguratua bada. Nolanahi ere, 8.500 euroko murriztapena egiten ahalko da urtean, gehienez, aurreikusitako igoerak aplikatzeagatik.

Orobat, banakako pensioen produktu paneuroparrei (PEPP) buruzko informazioa emateko betebeharra jasotzen du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hemezortzigarren xedapen gehigarriak; betebehara hori garatuta dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.9 artikuluan (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).

Horregatik guztiagatik, urriaren 25eko 111/2022 Foru Agindua aldatu behar da, 345 eredia onesten duena ("Aitorpen informatiboa. Planak, pensio funtsak eta sistema alternatiboak. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, aurreikuspen plan aseguratua, aurrezpen sistematikoko banakako planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta mendekotasun aseguruak. Partaide, ekarpen eta kontribuzioen urteko aitorpena"), eredu horren egungo erregistro-diseinuen idazketa egokitzeko eta zehazteko.

NAO — 029 zk. — 2024/02/08 — (TFLO) — 

2/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 19KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITIRA 31/2023 FORU AGINDUA, APIRILAREN 25EKO, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ALKOHOLAREN ETA EDARI ERATORRIEN GAINEKO EDO HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGEN EREMU OBJEKTIBOETAKO PRODUKTUAK GORDAILU FISKALETATIK ATERATZEN DITUZTENEN ERREGISTROA SORTZEN DUENA; ETA 8/2017 FORU AGINDUA, ABUZTUAREN 11KOA, OGASUNeko ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIAK EMANA, PERTSONA EDO ENTITATE EKINTZAILEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUENA.

Zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu neurri batzuk aldatzeari buruzko abenduaren 26ko 22/2023 Foru Legeak zenbait arau aldatzen ditu, eta horietako bat Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra da.

Zehazki, hogeita zortzigarren xedapen gehigarria aldatzen du, bi prozedura berri gehitzeko, interesdunak eskatuta hasi eta hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada ezetsitaz har daitezkeen atalean.

Lehenbizikoa da alkoholaren eta edari eratorrien gaineko edo hidrokarburoen gaineko zergen eremu objektiboetako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituztenen erregistroan alta eskatzeko prozedura. Erregistro hori apirilaren 25eko 31/2023 Foru Aginduan araututa dago.

Bigarrena pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzea eskatzeko prozedura da. Abuztuaren 11ko 98/2017 Foru Agindua arautzen du erregistro hori.

Horrenbestez, bidezkoa da aipatutako foru agindu horien edukia egokitzea, bat etor dadin Tributuei buru Foru Lege Orokorraren hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian isiltasunari dagokion ezarritako ondorio negatiboarekin.

NAO — 029 zk. — 2024/02/08 — (ZERGA BEREZIAK) — 

3/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 19KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAREN MARTXOAREN 16KO 19/2023 FORU AGINDUA (HAREN BIDEZ 366 EREDUA ONETSI ZEN, "HONDAKINAK HONDAKINDEGIETAN UZTEAREN ETA HONDAKINEN ERRAUSKETAREN ETA KOERRAUSKETAREN GAINEKO ZERGA. AUTOLIKIDAZIOA" IZENEOA), ETA ARAUTZEN BAITA ZERGAREN LURRALDE-ERREGISTROAN INSKRIBATZEA.

Zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu neurri batzuk aldatzeari buruzko abenduaren 26ko 22/2023 Foru Legeak zenbait arau aldatzen ditu, eta horietako bat Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea da.

Zehazki, foru lege horren 34.1 eta 38.1 artikulua aldatzen ditu, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoaren figura ezabatzeko, Nafarroako toki erakundeen ordezkari gisa, hondakinen gaineko zergaren autolikidazioari eta ordainketari dagokienez toki erakundeek dituzten betebeharrak betetzeko.

Horrez gain, 34.2 artikulua aldatzen du, zergadunen ordezkioak izan daitezzen hondakinen errausketa edo koerrausketa egiten den instalazioak edo hondakindegia kudeatzen dituztenak, eta ez haien titularrak.

Foru agindu honen helburua da aldaketa horiek egitea martxoaren 16ko 19/2023 Foru Aginduan, zeinaren bidez 366 eredu onetsi baitzen, "Hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zerga. Autolikidazioa" izeneko.

NAO — 032 zk. — 2024/02/13 — (PFEZ) — 

5/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA BI FORU AGINDU: ALDE BATETIK, URTARRILAREN 8KO 3/2018 FORU AGINDUA, 190 EREDUA ONETSI ZUENA ("PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN, LAN ETEKINENGATIK, ENPRESA- ETA LANBIDE-JARDUERA BATZUENGATIK, SARIENGATIK ETA ERRENTA-EGOZPEN BATZUENGATIK EGINDAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN URTEKO LABURPENA" IZENEOA); ETA, BESTE ALDE BATETIK, 189/2015 FORU AGINDUA, EKAINAREN 29KOA, EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIAK EMANA, 270 EREDUA ONETSI ZUENA ("ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN URTEKO LABURPENA. ZENBAIT LOTERIA ETA APUSTUREN SARIEN GAINEKO KARGA BEREZIA" IZENEOA).

Urriaren 31ko 234/2023 Foru Dekretuak maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 78.1 artikulua aldatzen du. Zehazki, d) letra berri bat gehitzen du, Artistaren Estatutuan atxikipenen gainean jasotako neurriak betetzeko. Horren arabera, ehuneko 7ko atxikipen tasa murriztua aplikatzen zaie maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legeak onartutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifetan eta Instrukzioan jasota dauden bigarren sekzioko 851, 852, 853, 861, 862, 864 eta 869 taldeetan eta hirugarren sekzioko 01, 02, 03 eta 05 taldeetan jasotzen diren jarduerak garatzen dituzten zergadunei; edo jarduera profesional horren kontraprestazioa erortzen denean zerbitzu-prestazio batetik, eta prestazio hori, besteren kontura eginez gero, sartuko bada arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musikaletan aritzen diren artisten edo jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera teknikoak edo osagarriak egiten dituzten pertsonen lan harreman berezian aplikazio esparruan, betiere, letra honetan aurreikusitako kasuetatik edozeinetan, jarduera horien etekin guztien bolumenta, aurreko ekitaldiari dagokionez, 15.000 euro baino txikiagoa bada, eta zergadunak ekitaldi horretan lanetik eta jarduera ekonomikoetatik lortu dituen etekin guztien % 75 baino gehiago bada.

Aipatu 234/2023 Foru Dekretuak Zergaren Erregelamenduaren 84.2 artikulua ere aldatzen du, ehuneko 19ko atxikipen tasa ezarri 64.2.b) artikuluan araututako ordaindutako diru-sarrera guztien gainean, jabetza intelektualaren ziozkoetan salbu.

Azken horiek 84. artikuluko 3. apartatu berrian arautzen dira. Apartatu horrek ehuneko 15eko atxikipen tasa espezifikoa sartzen du jabetza intelektualaren ziozko etekinen gainean, beren kalifikazioa edozein izanik ere, 84.3 artikuluan a), b) eta c) letratan aurreikusitako ehuneko 7ko tasa aplikatzen denean izan ezik. Obra literario, artistiko edo zientifikoak egitearen ziozko lan etekinak aurreikusten dira a) letra horretan, utsiapenerako eskubidea lagatzen dutenak, baldin eta aurreko ekitaldiari dagokion etekin oso horien bolumenta 15.000 eurotik beherakoa bada, eta zergadunak ekitaldi horretan bere jarduera ekonomikotik eta lanetik lortu dituen etekin osoen baturaren % 75 baino gehiago osatzen badu. Bestalde, b) letra 78.1.d) artikuluan araututako etekin profesionaleri buruzkoa da. Azkenik, c) letran ehuneko 7ko atxikipen ehuneko ezartzen da, zenbait urtetan sortuko diren egile eskubideen utsiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak direnean.

Aipatutako aldaketan ondorioz, beharrezkoa da "Hartzekoan gako" eremuko gakoaren deskripzioa handitzea. Eremu horrek 190 eredu (Informazio aitopena. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak, sariak eta zenbait ondare irabazi eta zerga egozpen. Urteko laburpena) erregistro diseinuen 2. erregistro motako ("Pertzepzioa") 78. idazgunea betetzen du. Zehazki, "F", "G" eta "I" hartzekoan gakoak aldatzen dira. Era berean, beharrezko azpigakoak sortzen dira, 79-80 idazguneetan, aipatutako kasu berri guztiak aurreikusteko.

Horrez gain, 234/2023 Foru Dekretuak aldatu egiten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 71.Bi.4 artikuluko lehen paragrafoa, ehuneko 2ko gutxieneko atxikipen tasa aplikatuko duten kasuen artean sartuta arte eszeniko, ikus-entzunezko eta musiketan lan egiten duten artisten lan harreman bereziaren ondoriozko kontratuak eta jarduera hori garatzeko beharrezko jarduera tekniko edo osagarriak egiten dituzten pertsonenak. Ondorioz, beharrezkoa da "Harreman mota" eremuan agertzen diren egungo kontratu edo harreman motak aldatzea. Eremu horrek 190 eredu erregistro diseinuen 2. erregistro motako 153. idazgunea betetzen du.

Bestalde, azken urteetan kolektibo zaugarrienentzat ezarri diren laguntzak garatzearekin zuzenean edo zeharka lotuta, eta laguntza horiek zuzen eta erraz izapidetu eta kudeatu ahal izateko helburuz, komenigarria da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE), dagokion erakunde ordaintzaile gisa, ordaindutako prestazio eta laguntzen banakapen handiagoa edukitzea, bai enplegu erregulazioko espedienteen ziozko prestazioetan, bai langile autonomoei jarduera uzteagatik prestazio moduan ordaindutako zenbatekoetan eta beste kasu batzuetan (langabezia laguntzak edo laneratzeko errenta aktiboa). Prestazio horiek guztiak, aldaketa hau egin arte, erantsita esleitzen zituen aipatu erakunde ordaintzaileak, "C" hartzekoan gakoaren barruan.

Badago 190 eredu egin behar den beste aldaketa bat ere, berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarri berriak ezartzen duena. Xedapen hori estatu mailan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legean sartu da, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen bidez. Xedapen horrek ohiko bizileku eraginkorra La Palma uhartean duten zergadunei hedatzen die 35/2006 Legearen 68.4.1 artikuluan aurreikusitako kenkaria, baldintza berberetan, 2022 eta 2023 zergaldietarako. Ondorioz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako sarrera edo atxikipenaren pean dauden errenta eta etekinen hartzailerek, baldin eta ohiko bizileku eraginkorra uharte horretan badute 2023ko ekitaldian eta horien zioz aipatu kenkaria aplikatu badezakete, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan eta Legeak errenta eta etekin horietarako ezartzen duen atxikipen ehunekoaren murrizketa baliatzen ahalgo dute. Beraz, beharrezkoa da 190 eredu egin La Palma uharterako egoiliarak bereizi eta identifikatzea, aparte, Santa Cruz Tenerifeko gainerako egoiliarren aldean.

Bestalde, salbuetsitako errentak hobeki identifikatzeko, aldatu egin dira "24", "30" eta "31" azpigakoak, eta beste bi sortu, "32" eta "33" azpigakoak, "L" gakoan, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 15.3.e) eta 15.3.f) artikuluetako salbuetsitako errentak bereizte aldera.

Azkenik, Administrazio Kontseiluetako, horien ordezeko Batzetako edo bestelako ordezkari organoetako administrari eta kide izatearen atxikipen eta ordainsarien gainean, baldin eta prestazio horiek sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren erakundeek ordaindu badituzte eta zerga hori Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek edo Nafarroako Foru Komunitateak batera eskatzen ahal badute, historikoki desadostasunak sortu izan dira konturako diru sarreraren eta atxikipenen autolikidazioetan eta urteko informazio aitortzen jasotako datuen artean. Hori dela eta, batzuetan, lan etekinen gako hau eskatu behar izaten zaie bai erakunde ordaintzaileei bai hartzaileei. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ekonomikoa Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onartzen duen abenduaren 26ko 28/1990 Legeak ezartzen dute ezen, aipatutako lan etekinak ordaintzen dituen erakunde sozietateen gaineko zergarengatik Estatu Administrazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundi bati edo guztiei, edo, hala badagokio, Nafarroako Foru Komunitateari batera ordaintzen badizkie ordainsari horiei dagozkien atxikipenak, proportzio horretan eskatu behar dizkietela administrazio horiek, eragiketen bolumenaren arabera, ondorio horietarako sozietateen gaineko zergak egindako azken aitortpen likidazioan zehaztutako proportzioa aplikatuta. Aitzitik, atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenak aurkezteari dagozkionez –etekin horiek hizpide–, bi arau-testuek –Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ekonomikoa Itunak eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa– berariaz adierazten dute informazio aitortpen horiek administrazio eskudun bakoitzean aurkeztu beharko direla, ordainarazteko, baina horiei dagozkien etekin eta atxikipen guztiak –etekin mota horiek hizpide– administrazio bakoitzari aurkeztutako aitortpenean sartuta.

Kontraste informazioa osorik edukitzeko eta arlo honetako errekerimenduek eta egiaztapenek dakartzaten karga administratiboak murrizteko, egokitaz jotzen da 190 ereduaren eremu berri bat sortzea, "Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta Nafarroako Foru Komunitateak Zerga Administrazio Ekatu Administrazioa sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak" izenekoa, "E" gakoan sartutako prestazioen kasuan soilik betetzeko, bertan islatzen baitira lan etekin mota horiek.

Aurreko arrazoen ondorioz, eta zergei buruzko ahalik eta informazio zehatzena edukitzeko beharrezko zioz, batez ere pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren datu fiskalak zergadunen eskura jartzeko, beharrezkoa da 3/2018 Foru Agindua aldatzea, aipatutako baldintzetan.

Bestalde, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariaren ekainaren 29ko 189/2015 Foru Agindua aldatu da. Haren bidez 270 eredu onetsi zen ("Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena. Zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga berezia").

Estatuaren esparruan, Jokia arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren eremuan, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado S.M.E., S. A. sozietateak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalak, lege honetan araututako Estatu mailako loteria jokoak merkaturatzeko izendatutako operadore gisa, hilero eman behar dute ordaindutako sariei buruzko informazioa bitarteko elektronikoen bidez, atxikipenari lotuta egon edo ez, honako hauek adierazita: hartzailea eta haren legezko ordezkaria, zozketa edo apustua egin den eguna, saria ordaintzeko eguna eta ordaintzeko modua, eta, hala badagokio, atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Ekonomia Hitzarmenaren 14.2 artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumena izan du zenbait loteria eta apusturen sarien gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako sarrerak eskatzeko, hartzaileak bere ohiko bititokia edo helbide fiskala lurralde horretan duenean, ordaintzailearen helbide fiskala edozein dela ere.

Aurrekoarekin bat etorritik, hileko hornidura horrek 270 ereduko diseinuen 1. erregistro mota aldatzea eskatzen du, aitortzaileak adierazi ahal izan dezan informazioa hilero edo urtero ematen den.

NAO — 032 zk. — 2024/02/13 — (PFEZ, AZ, E-EEZ) —

6/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA, EKONOMIA ETA OGASUNEO KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 223/2011 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 27KOA, EKONOMIA ETA OGASUNEO KONTSEILARIAK EMANA. HAREN BIDEZ, 193 EREDUA ONETSI ZEN, ONDASUN HIGIGARRIEN KAPITALAREN ZENBAIT ETEKINENGATIK PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARAKO ETA, ZENBAIT ERRENTARENGATIK, SOZIETATEEN GAINEKO ZERGARAKO ETA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREI DAGOKIEN EZ-EGOILIARRAREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARAKO EGINDAKO ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN URTEKO LABURPEN AURKEZTEKO; HALABER, AZAROAREN 24KO 208/2008 FORU AGINDUAREN BIDEZ ONETSITAKO 196 EREDUAREN DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK ALDATU ZIREN.

Lehenik eta behin, ereduaren erregistro diseinuetan, La Palma uhartea "Probintziaren kodea" eremuan banakatzen da, 2. motako erregistroan (hartzailearen erregistroa). Halaber, "% atxikipena" eremuaren deskribapena eguneratzen da.

Ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan (hartzailearen erregistroa), 15. azpikarria sartzen da C hartzeko gakoaren barruan, "Izaera" eremuan, egile-eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakin berri emateko, aurrerakin horiek kapital higigarriaren etekintzat hartzen direnean, eta hainbat urtetan sortuko direnean; izan ere, kasu horietan atxikipenaren eta konturako sarreraren ehunekoa ehuneko murriztua da, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 84.3.c) artikulua arabera.

Era berean, kategoria berri bat sartzen da ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) "Ordainketa" eremuan, aitortzaileak gainerako kategorietan sartzen ez diren bestelako etekin edo errenten bitartekari gisa egiten dituen ordaintzen berri emateko. Bestalde, aldaketa tekniko bat sartzen da ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroko (hartzailearen erregistroa) "Aitortzailearen izaera" eremuan, honako hau adierazteko: eremu horretan "S" adierazten bada, "Penalizazioak" eremua (182-192 idazguneak), ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan (hartzailearen erregistroa), zerotz beteko da.

Gainera, 296 ereduaren aldaketarekin bat etorritik, "Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak" eremu berria sortu da, Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenaren eta konturako sarreraren berri bereiz emateko, kapital higigarriaren etekinek edo atxikipenari lotutako errentek A, B edo D "hartzeko gako" badute soilik betetzeko (92. idazgunea), ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan (hartzailearen erregistroa).

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 87.1 artikulua ezartzen duenez, atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartuta dauden subjektuek atxikipenaren eta konturako sarreraren urteko aitortpena aurkezteko betebeharrak forma dute, erregelamendu bidez zehaztuko den edukiarekin.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 79. artikulua ezartzen duenez, atxikipena egitera behartuta dagoen subjektuak ezinbestekoa du atxikipenaren urteko laburpena aurkeztea, erregelamendu bidez zehaztuko den edukiarekin.

Ez-egoiliarren gaineko ezarpenari dagozkionez, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege-dekretuaren 31.5 artikulua ezartzen du atxikipena eta konturako sarrera egitera behartuta dagoen subjektuak ezinbestekoa duela atxikipenaren eta konturako sarreraren urteko aitortpen bat egitea, erregelamendu bidez zehazten den edukiarekin.

NAO — 032 zk. — 2024/02/13 — (PFEZ) — 

9/2024 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 26KOA, EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 156/2016 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 16KOA, OGASUNeko ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIAK EMANA, "FINANTZA-AKTIBOekin ETA BESTELAKO BALORE HIGIGARRIEKIN EGINDAKO ERAGIKETEN URTEKO AITORPENA" IZENEKO 198 EREDUA ONETSI ZUENA.

Foru agindu honen xedea da eredu hori onartzen duen abenduaren 16ko 156/2016 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotako 198 ereduaren erregistro diseinuetan beharrezkoak diren aldaketak sartzea, informazio fiskala modu egokian biltzeko.

Alde batetik, Batzordearen 2018/1229 Erregelamendu Eskuordetuan (EB) xedatutakotik eratorritako konpentsazioei eta zigorrei buruzko informazioa modu egokian jasotzeko aldaketak nabarmendu behar dira (Batzordearen 2018/1229 Erregelamendu Eskuordetua, 2018ko maiatzaren 25ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 909/2014 Erregelamendua (EB) osatzen duena, likidazio-diziplinari buruzko arau teknikoek dagokienez).

Bestalde, "L" gako berri bat sartu da 2. motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) "Balorearen gakoa" eremuan, diferentzien arabera kontratuak identifikatzeko.

Era berean, "Ordena-zenbakia" eta "Finantza-aktiboen eta beste balore batzuen kopurua" eremuetako idazguneen kopurua handitu da, eta "Eragiketaren gastuak" eremua nola informatu zehazten da, eragiketa bati lotutako kide bat baino gehiago aitortuz gero.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zen, eta haren laugarren xedapen gehigarriko zazpigarren apartatuan Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari ahalmena eman zitzaion balore, aseguru eta errentei buruzko aitorten informatiboaren eredia, epea, aurkezteko modua eta edukia ezartzeko.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren zazpigarren xedapen gehigarrian baimena ematen zaio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari foru agindu bidez arautu dezan zergadunek eta entitateek zer kasu eta baldintzatan aurkezten ahal dituzten baliabide elektroniko, informatiko eta tematikoen bitartez aitortenak, jakinarazpenak, aitorten-likidazioak, autolikidazioak edo tributuen arloko araudiak eskatutako beste agiri guztiak.

NAO — 035 zk. — 2024/02/16 — (AURREKONTUAK) — 

1/2024 FORU LEGEA, OTSAILAREN 7KOA, NAFARROAKO 2022KO KONTU OROKORREI BURUZKOA.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorra prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru-lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2022ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko foru-legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 178. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

NAO — 041 zk. — 2024/02/26 — (BEZ, EEEBZ) — 

1/2024 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA, 2024KO OTSAILAREN 14KOA, TRIBUTU HARMONIZAZIOARI BURUZKOA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGARI DAGOZKION ZENBAIT NEURRI LUZATZEN DITUENA, ETA ALDATZEN DUENA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ERREGELAMENDUA, MARTXOAREN 8KO 86/1993 FORU DEKRETUAREN BIDEZ ONETSIA.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrek harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean, EEEBZa) eta balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une oro indarra duten oinarritzko printzipio eta arau substantibo eta formal berberak.

Horren ondorioz, Nafarroak bere tributu-araubidea aldatu behar du zerga horien arau substantibo eta formalei eragiten dien tributu-araubide erkidearen erreformaren bat dagoenean. Helburu horrekin, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordetuta, tributuei buruzko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak ematen ahalko dituela. Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuaren esparruan, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez, 2024ko lehen seihilekorako luzatu da oinarritzko elikagaien BEZari %0ko zerga-tasa aplikatzeko neurria, eta oliba-olioari, hazi-olioei eta janari-pastei %5ekoa aplikatzekoa, elikagai horien azken prezioa txikiagoa izan dadin laguntzeko. Azpiko inflazioaren bilakaera positiboa izaten ari bada ere, luzapen hori egin da elikagaien eta edari alkoholgabeen urteko inflazio-tasa altua delako.

Halaber, prezioei eusteko eta energiaren esparruan kaltetuen izaten ari direnei laguntzeko, errege lege dekretu horrek energia elektrikoaren hornidura jakin batzuei eta gas naturalari zerga-tasa murriztuak aplikatzeko neurria luzatzen du. Zehazki, elektrizitatearen hornidura fakturaren osagai guztiei BEZaren %10eko tasa murriztua aplikatuko zaie 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte, 2023ko abenduaren 31ra arte aplikatzekoa zen %5ekoaren ordez. Gas naturalaren horniduran ere %10eko tasa murriztua aplikatuko da 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte.

Zerga murriztuen luzapen hori aplikatuko zaie, orobat, pelletei, briketei, egurrari eta biomasatik datozen eta berokuntza sistemetan gas naturala ordezteko erabiltzen diren beste gai ekologiko batzuei; 2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era arte %10eko tasa murriztuarekin ordainduko dituzte zergak.

EEEBZaren esparruan, elektrizitatearen prezioa nabarmen beheratu denez azken hilabeteotan, aipatu 8/2023 Errege Lege Dekretuak arindu egiten du ekainaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez hartu zen ohiz kanpoko neurri bat, EEEBZa eten zuena. Hori horrela, 2024ko ekitaldian hauxe izanen da zergaren zerga-oinarria: energia elektrikoa (zentraleko barratan neurtua) ekoitzi eta sisteman sartzegatik zergadunari dagokion zenbateko osoa, instalazio bakoitzeko eta zergaldi horretan, ken lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak, ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien laurden bat.

Horrez gain, egun berean, hots, abenduaren 27an, Estatuak 1171/2023 Errege Dekretua onetsi zuen, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua aldatzen duena. Arau horren bidez onetsi ziren aldaketak bat datoz, Foru Komunitatearen esparruan, urriaren 31ko 234/2023 Foru Dekretuak zerga horren erregelamenduan ekarri zituenekin (erregelamendua martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Baina bi salbuespen daude. Alde batetik, lurralde erkidearen Erregelamenduen 62 ter artikulua idazketa eta Foru Komunitateko Erregelamenduen 53 ter artikulua, biak ala biak ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroen edukari buruzkoak. Eta, bestetik, lurralde erkidearen indarreko 81 bis.2 artikulua idazketa eta foru arauaren 70 bis.2 artikulua, non ordainketa zerbitzuen hornitzaileen erregistroen gaineko aitorpena egiteko epea arautzen baita.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, BEZari eta EEEBZari dagokienez, Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berberak aplikatu daitezkeen Foru Komunitatean.

NAO — 041 zk. — 2024/02/26 — (EEEZ) —

14/2024 FORU AGINDUA, OTSAILAREN 7KOA, EKONOMIA ETA OGASUNEO KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIAREN EKAINAREN 18KO 231/2013 FORU AGINDUA, EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN 210 ETA 211 EREDUAK ONETSI ETA HORIEK AURKEZTEKO BALDINTZA OROKORRAK ETA PROZEDURA EZARRI ZITUENA. EREDU HORIEK ERABILI BEHAR DIRA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK AITORTZEKO ETA ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABEKO EZ-EGOILIARRENGANDIK ONDASUN HIGIEZINAK ESKURATZEAGATIK EZARRITAKO ATXIKIPENA AITORTZEKO.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 28. artikulua ezartzen duenez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordainarazteko orduan, Estatuak unean-unean ezarrita dituen arauak aldatuta, funtsez eta formaz eduki bera duten arauak aplikatuko ditu Foru Komunitateak. Era berean, artikulua horrek Foru Komunitateari esleitzen dio zergaren aitorpen eta sarrera ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzerako sarrera epeak ezartzeko eskumena. Ereduek, gutxienez, lurralde erkideko datu berak izan behar dituzte, eta sarrera egiteko epeak ez dira nabarmen aldatu behar Estatuako Administrazioak adierazitakoetatik.

Eskumen hori baliatuz, ekainaren 18ko 231/2013 Foru Aginduak 210 eta 211 aitorpen ereduak onetsi zituen, hau da, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten autolikidazioa eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrengandik ondasun higiezinak eskuratzeagatik egindako atxikipenaren autolikidazioa egiteko erabili behar direnak.

210 ereduaren berariaz arautzean, foru agindu horrek zerbait errenta elkartzeko aukera aurreikusi zuen, horrela establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen betebeharrak sinplifikatzeko. Errentak elkartzeko, hiru hilean behingo maiztasuna ezarri da, diru-sarrera egiteko emaitza duten autolikidazioen kasuan.

Zergadunen zerga-betebeharrak sinplifikatzeko helburu horretan aurrera egiteko, foru agindu honen xedea da bidea ematea errentak urteko elkartzeko, zergadunak jasotzen dituen errentak higiezinaren errentamendu edo azpierreantamenduen ondoriozkoak direnean.

Foru agindu honen bidez garatutako erregelamendu-ahalaren erabilera bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutako erregulazio onaren printzipioekin. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen ezarritako printzipio hauek ere betetzen dira: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Halaber, ordenamendu juridikoak ematen dituen gaikuntzen babespean dago. Hori horrela, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginaren azken xedapenetako bigarrenak 2. zenbakian ezartzen duenez, zerga honen aitorpena eta haren konturako ordainketak egiteko ereduak Ogasuneko ministroak onetsiko ditu, eta hark ezarriko ditu, halaber, aurkezteko modua, tokia eta epeak, bai eta modu telematikoa aurkezteko kasuak eta baldintzak ere. Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 6. artikuluari jarraikiz, ulertu behar da gaikuntza hori ematen zaiola Nafarroako Gobernuaren zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrari.

NAO — 041 zk. — 2024/02/26 — (PFEZ) —

